

2018/11/26an EGINDAKO EZOHICO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
26/11/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Maidier Otamendi Tolosa
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko maiatzaren 22a, arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gainerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Aitor Zubizarreta eta Maite Zubia.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 26 de noviembre, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Aitor Zubizarreta y Maite Zubia.

1.- ALKATEAREN KOMUNIKAZIOAK.

2018ko azaroaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 20, 21 eta 22/2018 kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

2.- EH BILDU-ESKORIATZAKO HAUTAGAI HAUTETSIK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Udalbatzarrari jakinarazi zaio Maider Otamendi Tolosa andreak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitorpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen; eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Maider Otamendi Tolosa andreari bere kargua eman dio.

3.- GARAPEN EKONOMIKO JASANGARRIA BATZORDE INFORMATZAILERAKO “ESKORIATZAKO EH BILDU”KO KIDE BERRIA IZENDATZEA.

Eskoriatzako EH BILDU taldeak proposatuta, aho batez, izendatu da Maider Otamendi Tolosa zinegotzia Eskoriatzako EH BILDU taldeko ordezkari Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzailean.

4.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN BIGARREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2017ko abenduaren 18ean egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa eguneratzeko erabakia hartu zuen plan hori 2018ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeko.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko. Aldaketa horiek honako hauek dira:

A- ONDORENGO PROGRAMANTAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: 4x4 KIROL ERAKUSTALDIA. 516,67 euroko diru laguntza izenduna aurreikustea.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: 4x4 KIROL ERAKUSTALDIA

HARTZAILEA: ESKOMOTOR

HELBURUA: Eskoriatzan kirol zaletasun ezberdinak bultzatu eta motor mundua ezagutzera ematea.

LORTU GURA DENA: 4x4 auto erakustaldia antolatzean sortutako gastuei aurre egitea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: izenduna.

2018ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 516,67 euro.

FINANTZAZIOA: 0400.481.341.90.01

5.- 23. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 23. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 23. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera.

Gastu partidak: transferitu gura diren kredituak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0200.330.011.00.01 2018	MAILEGUEN INTERESAK	1.985,51	1.985,51	0,00
1 0100.481.161.00.01 2018	DIRU LAGUNTZA:ELIZATEETA KO URAK	25.000,00	25.000,00	0,00
1 0100.221.165.00.01 2018	ARGITERIA PUBLIKOA	83.575,50	13.389,69	70.185,81
GUZTIRA		110.561,01	40.375,20	70.185,81

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.211.342.20.01 2018	MANTENIMENDUA:KIRO LDEGIA	7.000,00	6.000,00	13.000,00
1 0100.212.342.20.01 2018	MANTUA:MAKINAK:KIRO LDEGIA	10.000,00	4.000,00	14.000,00
1 0100.221.342.20.99 2018	BESTELAKO EROSKETAK:KIROLDEGI A	4.000,00	7.000,00	11.000,00
1 0100.227.342.20.01 2018	GARBITASUNA:KIROLDE GIA	35.796,00	6.000,00	41.796,00
1 0100.227.342.10.01 2018	GARBITASUNA:PILOTAL	3.000,00	6.000,00	9.000,00

	EKUA			
1 0100.227.342.20.02 2018	SEGURTASUNA:KIROLDE EGIA	1.735,12	3.000,00	4.735,12
1 0100.226.338.10.06 2018	EKINTZAK:ELIZATEAK	7.500,00	844,00	8.344,00
1 0400.481.341.90.01 2018	DIRU LAGUNTZA.ESKOMOTO R.4x4 TRIALA	0,00	525,00	525,00
1 0100.227.151.00.07 2018	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:HIRIGINTZA	20.000,00	2.904,00	22.904,00

* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

6.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2018KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaietzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2018ko uztailaren 1etik 2018ko irailaren 30era arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

(Kultura zerbitzuari emandako 6/2018 kutxa aurrerakina).

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

7.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2018ko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

8.- BERTSO ESKOLA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari Eskoriatzako bertso eskola eskaintzeko zerbitzua adjudikatzea, honako baldintza hauetan:

4. **Iraupena:** Zerbitzua 2018ko urriaren eta 2019ko ekainaren bitartean eskainiko da.
5. **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 1191,40 eurokoa izango da (BEZ salbuetsita) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren %33a (hau da, 393,16 €) 2018ko abenduan ordainduko da eta gainontzeko %67a (hau da, 798,24 €) 2019ko ekainean.
6. **Txostenak:** Faktura bakoitzarekin batera, bertso eskolari buruzko balorazio txostena aurkeztu beharko da. Abenduan, ikasturtearen hasierari buruzkoa, eta bertan zehaztuko dira eskola egutegia eta ordutegia, talde bakoitzeko kide kopurua eta ikasturtearen hasierako ebaluazioa. Ekainekoan, berriz, ikasturtearen balorazio orokorra aurkeztuko da, egindako ohiko eta ez ohiko jardueren berri emanez.
7. **Baldintza teknikoak:**

Zerbitzua eskaintzeko kontratatuko diren pertsonak, bertso mundua ondo ezagutzen dutenak izan beharko dira eta bertso eskolak emateko behar besteko gaitasuna dutenak. Ahal den neurrian, gainera, Eskoriatzakoak edo ingurukoak izatea hobetsiko da.

2018-2019 ikasturtean talde bakarrak izango da.

Taldea, gutxienez, astero ordubetez elkartuko da, lan-eskaintzan zehaztutako asteetan.

8. **Lankidetza:** Zerbitzua eskaintzeko Eskoriatzan bertsogintzaren inguruan dauden baliabideen laguntza erabiliko du Gipuzkoako Bertsozale Elkartek, kasu honetan Hankamotx bertso eskolarena, bera baita momentu honetan Eskoriatzan dagoen bertsogintzako talde bakarra.

Bigarrena.- Zerbitzu honen prezioa den 1.191,40 euroko gastua onartzea. Kopuru horretatik 393,16 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0402.226.355.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da 798,24 €, 2019. urteko aurrekontuaren kontu.

Hirugarrena.- Aurreko baldintzetan oinarrituta Eskoriatzako Udala eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen arteko kontratu administratiboa sinatzeko ahalmena alkateari ematea.

9.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Udalbatzarrak, 2018ko uztailaren 28an egindako bilkuran, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko espediente onartzea erabaki zuen. Kontratuari kalkulaturako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 154.748,08 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 32.497,10 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zituzten beraienak:

- CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.
- UTE ANSAREO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A. y TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.

Eskaintzen balorazioaren emaitza honako hau izan da:

IRIZPIDEAK		CESPA	UTE ANSAREO Y TRAECO
Lanaren antolaketa (30 puntura arte)	Programazioa (20 puntura arte)	18	12
	Kalitateen kontrola (10 puntura arte)	8	10

Makineria	Egokitasuna (14 puntura arte)	10	6
	Isurketak (3 puntura arte)	0	0
	Olioak eta lubrifikatzailleak (2 puntura arte)	2	1
Derrigorrezko zerbitzuetarako eskaintza (lehiaketako prezioa 154.748,08 euro)		153.459,25 euro 49,35 puntu	151.451,94 euro 50 puntu
Aukerako zerbitzuetarako eskaintza (lehiaketa prezioa: 80 euro orduko)		79,99 euro orduko 0,898 puntu	71,90 euro orduko 1 puntu

Lortutako puntuazioaren arabera, eskaintzak puntu gehien lortu dituenetik puntu gutxien lortu dituenera sailkatu dira:

ENPRESA	PUNTUAK GUZTIRA
CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.	88,248

UTE ANSAREO SAANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A. y TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.	80
---	----

Kontratazio Mahaiak 2018ko azaroaren 12an egindako proposamena ikusi da.

CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresak eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu eta 7.672,96 euroko behin betiko bermea jarri du. Horiek horrela, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari esleitzea ondoren esango diren prezioetan. Kontratua baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe egongo da.

Prezioak:

- Derrigorrezko zerbitzuak: 153.459,25 euro gehi % 21eko BEZari dagozkion 15.345,93 euro.
- Aukerako zerbitzuak: 79,99 euro gehi % 21eko BEZari dagozkion 8 euro.

Bigarrena.- Enpresa esleipendunak berak adierazitakoaren arabera, kontrata honetako langileak Gipuzkoako Bide-Garbiketa Publikoaren Lan Hitzarmenaren pean egongo dira.

Hirugarrena.- Kontratua 15 egun balioduneko epean sinatuko da, erabaki hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Epe hori ez betetzea kontratistari egotzi dakion arrazoren batengatik kontratua ez betetzea izango da, eta kontratua suntsitzea ekar dezake.

Laugarrena.- Kontratazio honen esleipena eta formalizazioa kontratatzailearen profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean -EBAOn- argitaratzea.

BOTO AZALPENA:

Rafa Bernal: tristura ematen dit kontratu hau CESPAri emateak eta lorategiena FERROVIALi, eta CESPA FERROVIALen eskumendekoa izatea. Uste dut beste noizbait ere esan dudala, baina, baldintza-agiriak ateratzen ditugun bakoitzean enpresa handi hauek aurkezten dira bakarrik, eta uste dut gogoeta egin beharra daukagula -nahiz eta aurreko dagoeneko ez,

berandu delako eta prozesua tramitean dagoelako, baina, bai, kontratua erriztu behar denean-horrelako enpresa handiek kontratuak ez hartzea saihesteko; izan ere, denok dakigu nola jokatzen duten, lan prekarietatea daukate, agintari politikoekin nolabaiteko harremanak dituzten zantzuak daude... Ikusi dugu inguruko beste udal batzuetan zerbitzua udalekotu dutela eta funtzionatzen duela; beraz, gonbidatzen zaituztet eta proposatu nahi dut hurrengo gobernu taldeak azter dezala zerbitzu horiek udalekotzea.

Josu Ezkurdia: alde batetik, uste dut gure aldetik beti garbi utzi dugula ez garela zerbitzu horiek zuzenean ematearen aldekoak; eta, bestetik, uste dut batzordean ahalegin handia egin zela udal talde guztiek adostutako baldintza agiriak onartzeko. Aldaketa asko sartu ditugu zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, eta horregatik pozik gaude baldintza agiriekin, eta gainera, kontratuak urtebeteko iraupena du, eta horrek ahalbidetuko digu nola betetzen den baloratzea, eta horren arabera jokatzea.

Alkateak Rafari gogorarazi dio batzorde informatzailean eztabaidatu eta guztion artean adostu eta onartutako parametroetan oinarrituta egin dela kontratazioa.

Rafa Bernalek berriz adierazi du berari ez zaiola batere gustatzen CESPAn izatea esleipenduna, bere iritzia enpresa horiei buruz duen ezagutzan oinarrituta dagoela, eta arazorik gabe udalekotu daitezkeen zerbitzuak direla, beste leku batzuetan egin den bezala, eta horrela eginda lanaren kalitatea hobetzea eta kosteak gutxitzea lortzen dela. Gaineratu du ez dela bakarrik kostetan pentsatu behar, gogoeta egin eta ikusi behar dela ba ote dagoen modurik enpresa horiek esleipendun ez izateko beti eta enpresa txikiagoei aukera emateko.

10.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresak ezin izan du eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta ezta behin betiko bermea jarri.

Oraindik ere horretarako epe barruan dagoenez, aho batez erabaki da gaia aztertzeke lagatzea.

11.- IRABAZI ESKORIATZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA AIREA KUTSATUTA DAGOENEAN HERRITARREN OSASUNA BERMATZEKO JARDUERA PROTOKOLOEI BURUZ.

Hitza emanda, onartu dadin aurkeztu duen mozioaren laburpena egin du Rafa Bernalek. Mozioa, hitzez hitz, honakoa da:

*Rafael Bernal Gato, jaunak, Irabazi Eskoriatza udal-taldearen bozeramaile izanik, Udal Erregelamenduarekin bat etorriz, **kutsadura atmosferikoa nabari denean biztanleriaren osasuna bermatzeko jardun-protokoloei** buruzko honako **MOZIO** hau aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatzeko.*

JUSTIFIKAZIOA

Kutsadura atmosferikoak milaka lagunen heriotza dakar urtero gure udalerrietan, Osasunaren Mundu Erakundeak askotan adierazi izan duenez. Egoera horren aurrean, kutsadura atmosferikoa puntualki edo modu iraunkorrean nabari denean biztanleriaren ahalik eta babes-mailarik handiena bermatzen duten jardun-jarraibideak eta -protokoloak ezartzeko erantzukizuna dute botere publikoek, bereziki industria-jardueretatik edota ibilgailuen trafikotik eratorritako kutsaduraren eragina gehien jasaten duten udalerri eta eskualdeek.

Gai horri dagokionez, azken hilabeteetan airearen kalitate txarrari lotutako protesta ugari egiten ari dira Euskadiko hainbat tokitan, kasu batzuetan foku ezagunetatik datozen kutsadura-gertakariei lotuta, eta beste batzuetan izaera kimikoa eta jatorri ezezaguna duten usain sendoengatik, eta berez kaltegarriak izan daitezke eraginpean hartutako biztanleen osasunerako.

Protesta gehienen ezaugarri komuna, kutsadura-gertakari horiek eraginpeko biztanleen osasunean izan ditzaketen ondorioekiko kezka da. Hala eta guztiz ere, ohikoa da Osasun Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren erantzuna bateratua edo koordinatua ez izatea. Era berean ohikoa da Osasun Sailak Osasunaren Mundu Erakundeak ematen dituen osasuna babesteko irizpiderik zorrotzenak kontuan ez izatea, edota Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

Sailak bere erantzunetan adieraztea Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearen diseinu, funtzionamendu eta/edo kudeaketan akatsak daudela.

Aurreko guztia kontuan izanik, honako mozio hau formulatzen da

MOZIOA

1. Udalaren Osoko Bilkuraren ustez botere publikoek atmosferako airearen kalitate egokia bermatu behar dute, kalitate horren narriaduran eragina duten faktoreen kontrol eta jarraipen zorrotza eginez, eta era berean, herritarrei arnasten duten airearen kalitateari buruz ematen zaien informazioa erraz eskuratzeko moduan eskaini behar dute.
2. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearen parametroak egunera ditzala, legezko mugak ezartzeaz gain, Osasunaren Mundu Erakundeak airearen kalitateari buruz gomendatzen dituen gida-balioen betetzeari buruzko informazioa emateko, eta informazio hori jendaurrean jartzeko erabiltzen dituen modu eta prozeduretan balio horiek kontuan izateko.
3. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erakunde aditu independente batek Euskadiko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearen egungo konfigurazioa berrikus dezala airearen kalitatea kontrolatzeko kabina finkoen kopurua, kokapena eta neurketa-parametroei dagokienez, eta berrikuspen hori herritarren osasunaren babesari lehentasuna emanez egin dadila.
4. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio beharrezkoak diren administrazio-mekanismoak garatu ditzala Osasun Sailak nahiz eraginpeko udalerriek Euskadiko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearen konfigurazioan egin beharreko aldaketei buruzko aginduzko irizpenak edota txostenak egin ahal izan ditzaten, hala airearen kalitatea kontrolatzeko kabinen kopuru eta kokapenari eta kabina bakoitzak dituen neurketa-parametroei dagokienez, nola

kutsadura monitorizatzeko unitate mugikorretarako aurreikusita dauden neurketa-kanpainei dagokienez.

5. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahal bezain laster beharrezko neurri teknikoak eta/edo antolaketa-neurriak har ditzala Euskadiko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak atmosferako airearen kalitatea kontrolatzeko neurketa guztien emaitzak bere webgunean denbora errealean adierazteko, kabina finkoetatik datozen emaitzak nahiz kutsadura kontrolatzeko unitate mugikorraren kanpainetan lortutako emaitzak.
6. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sei hilabeteko gehieneko epearen barruan Osasun Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren erantzun bateratuko protokolo bat ezar dezala, atmosferaren kutsadurari dagokionez legeko muga-balioak puntualki gainditzen dituzten gertakariei erantzuteko. Protokolo horrek, Sail bakoitzari esleituta dituen eskumenen arabera dagozkion jardueren banaketa egingo du, eta herritarrei eman beharreko informazioari buruzko jarraibide bat ezarriko du, lortu diren kutsadura-muga maximoak eta Administrazioak fokuarien jatorria zehazteko eta errepika dadin saihesteko egin dituen jardunak jendaurrean jartzeko.
7. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio unitate mugikorrek egindako partikulen kutsadura-mailen neurketekin batera, materia partikulatua dauden espezie kimikoak zehazteko analisiak egin daitezela.
8. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Osasun Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ordezkariak osatutako Lan Mahai bat sor dezala, bertan, sail bakoitzak esleituta dituen eskumenen arabera, ebazpen honetan hartutako neurriak modu egokian martxan jartzen direla gainbegiratzeko.
9. Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Eskoriatzako airearen kalitatea neurtzea, gure udalerriko herritarrek kalitate egokia duen airea arnasten dutela ziurtatzeko.

Azalpena amaituta, honako hauek hitz egin dute:

Josu Ezkurdiak adierazi du mozioak harritu egin duela bere taldea, agintaldi honetan ohiko jarduera izan delako mozioak negoziatzen saiatzea Udalbatzarrean eztabaidatu eta bozkatu aurretik, eta kasu honetan ez dela horrelako ezer egin. Uste du “ohitura politiko” horren aurka joatea litzatekela adostu gabeko mozio baten alde bozkatzea. Hala ere, esan du, mozioan adierazitako gauza askorekin ados dauelako eta mozioaren gaiaren inguruan gauza asko daudela egiteko uste dutelako, abstenitu egingo direla eta ez dutela aurka bozkatuko.

Beste inork ez du ezer esan.

Aldeko 5 botorekin (IRABAZIren 1 eta EHBILDUren 3) eta 5 zinegotzi abstenituta, (EAJ-PNVren 4 eta EEEren 1), mozioa onartu da.

12.- EUSKARAREN EGUNARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENEA.

Alkateak erakunde adierazpena irakurri du, Udalbatzarrak aho batez onartu duena:

Bizi. Prest

Egunero delako euskararen aldia

Bizi. Prest.

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest. Etxean bizi-bizi, kolean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin.

Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldadain, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakarra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra. Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko.

Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza.

Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tarte gainditzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarteeraldaketa

zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Euskararen gizartea. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propioetik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa.

Aski ez delako, honezkero, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainenara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.

Eta egin egingo dugu.

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoa prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin. Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:30ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 19 de noviembre de 2018 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de los acuerdos por los que se aprueban los expedientes de modificación de créditos N°20, N° 21 y N° 22 /2018.

2.-TOMA DE POSESION DEL CARGO DE CONCEJAL POR CANDIDATA ELECTA DE EHBILDU- ESKORIATZA

Dada cuenta al Pleno de que ha sido formulada la declaración de bienes patrimoniales, y de causas de posibles incompatibilidades y actividades que puedan proporcionar ingresos económicos, a los efectos de su inscripción en el correspondiente registro de intereses, tal como está previsto en el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y cumplidos los trámites legales de toma de posesión del cargo de concejal, el Pleno da posesión de su cargo a Maider Otamendi Tolosa.

3.-DESIGNACION DE NUEVO MIEMBRO DE “ESKORIATZAKO EH BILDU” EN LA COMISION INFORMATIVA DE DESARROLLO ECONÓMICO SOSTENIBLE.

A propuesta del grupo Eskoriatzako EH BILDU, por unanimidad queda designada la concejala Maider Otamendi Tolosa miembro representante de Eskoriatzako EH BILDU en la Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible.

4.-SEGUNDA MODIFICACION DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2017, adoptó el acuerdo de actualizar el Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 al objeto de adecuar dicho plan al contenido del Presupuesto del ejercicio 2018.

Aprobada la actualización, se ha visto la conveniencia de modificar algunas de las previsiones contempladas en su Anexo, con el fin de ampliar el ámbito subjetivo y/ o objetivo de algunos de los programas de subvenciones de las diferentes LINEAS ESTRATEGICAS. Dichas modificaciones consisten en:

A- INCREMENTAR EL COSTE PREVISTO EN LOS SIGUIENTES PROGRAMAS:

A) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: **EXHIBICIÓN DEPORTIVA DE 4 x 4. Prever una subvención nominativa de 516,67 euros.**

Por lo anteriormente mencionado, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y con el voto a favor de todos los concejales presentes, el Pleno ACUERDA

PRIMERO.- INCREMENTAR EL COSTE PREVISTO EN LOS SIGUIENTES PROGRAMAS:

A) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: EXHIBICIÓN DEPORTIVA DE 4 x 4

DESTINATARIOS: ESKOMOTOR

